

Sagastiak Loretan, Euskal Herriko hanamia



SagardoarenLurraldea
atzo : 14:08

Sagarrondoak hasi dira loratzen udaberriro legez, eta dagoeneko atondu dituzte Euskal Herriko landa paisaiak. Sagastien loraldiarekin batera, [Sagardoaren Lurraldeak](#) hainbat ekitaldi antolatu ditu gertakari hau ospatu eta jendea sagardoaren ekoizpenaren sekretuak ezagutzera gonbidatzeko, polinizaziotik hasi eta botilaratzera arte.



Sagastien loraldia azkenengo urteotan ospatu da Sagardoaren Lurraldean, [Japoniako hanami](#)-aren antzera, "Loreak ikusi" esan nahi du japoniarrez *hanami* hitzak. Urtero-urtero, japoniarrak parkeetara abiatzen dira gereziondoen ([sakura](#)) loraldiaz gozatzeko. Usadioa oso errotuta dago japoniako gizartean eta lagun nahiz senideak elkartzeko ohitura dute. "Nolabait esateko, eta ezberdintasunak ezberdintasun, [ohitura hori geurera ekarri](#) eta eta geure modura ospatu nahi dugu, sagardoaren ekoizpenaren unerik ederrenetako bat jendearengana gerturatuz", adierazi du Joxe Mari Laberrok, [Sagastiak Loretan](#) ekimenaren arduradunak.

Aurten, sagarrondoan loraldia apur bat atzeratu da, baina maiatzeko bigarren astetik aurrera hasi dira loratzen eta petalo zuriek estali dituzte Euskal Herriko sagastiak. Lore horietatik haziko dira sagardoa egiteko sagarrak. Japonian



PUBLIZITATEA

AZKEN ARTIKULUAK



HiztegiAPP: mugikorretarako aplikazio berria



Sagastiak Loretan, Euskal Herriko hanamia



Horrelakoxea da Google barrutik (Iruzkina 1)



eBay-k Ticketbis enpresa bilbotarra erosi du 165 milioi eurotan

Kazetarientzako Ekonomia Jardunaldia 'Euskal ekonomia eta industriaren egoera eta eronkak'

[»» Jardun osoa](#)

TWITTERREN KOMENTATUENAK

Presoen eskubideen urraketen berri emango dio Sarek Europari 25
[@berria](#) | [berria.eus](#)

Erraustegiaren izuaz 17
[@eznazazu](#) | [berria.eus](#)

Galder Barbado atxilotu du Guardia Zibilak, ustez ETA goratzeagatik 24
[@berria](#) | [berria.eus](#)

Itsasoz bestaldeko aniak eta arrebak 16
[@berria](#) | [berria.eus](#)


Galder Barbado gaztea atxilotu du Guardia Zibilak 105
[@topatu_eus](#) | [topatu.eus](#)

Galder Barbado gaztea atxilotu du Guardia Zibilak Danbada dela eta 30
[@aiaraldea](#) | [aiaraldea.eus](#)

[»» Ikusi albiste gehiago](#)

loraldiaren iragarpena (*sakurazensen*) meteorologia bulegoak egiten badu, Sagardoaren Lurraldean ekoizleek berak dira loraldia noiz izango den jakinarazten dutenak, aurreratu edo atzeratu egingo ote den.

Antolatutako ekimenen artean, azpimarratzekoak dira udaberriko [Sagardoetxeko](#) bisitak. Garai honeta polinizazio prozesuaren inguruko azalpenak ematen dituzte, sagardoaren ekoizpenaren alderdi ezezagun bezain garrantzitsua. Maiatzaren 28an, arratsaldeko 17:30ean, musika, [dantza eta antzerkia](#) uztartzen dituen ikuskizuna egingo da museoko sagastian.




Sagardoaren Lurraldetik jakinarazi dutenez, “azken urteotan ahalegin berezia egiten ari gara sagardoaren kulturarekin lotutako turismo-esperientziak eskaini eta sustatzeko. Eskaintza honen ardatza [txotx denboraldia](#) da eta, honen baitan, sagardotegiko menuaz gozatzeko esperientzia gastronomikoa. Baina Sagardoaren Lurraldean beste gauza asko dugu eskaintzeko”. Izatez, sagardoaren kulturari lotutako esperientziak Gipuzkoako erakargarri turistiko garrantzitsuenetako bat bilakatu dira.


Esperientzia hauen guztien bihotza Astigarragan dago, Sagardoetxea Museoan. Museo honetan sagardoaren kulturaren ezagutza eta zabalpena sustatzen dira ekimen ezberdinen bidez, Hala nola, Santiagomendiko Sagardo Bidea, sagardoaren probaketa didaktikoak, haurrentzako ekintzak, tren berdearen ibilbidea, Hernaniko kasko zaharrera bisita gidatuak edo une honetan Usurbilen ikusgai dagoen erakusketa.




AZKEN ERANTZUNAK

 **Kuriosoa CardBoard-arekin ikusteko** (Aitzol)
Horrelakoxea da Google barr..., 2016-05-26

 **Askoren bizipenak dira artikulu honetan jasotze...** (floresena)
Software libreria pasatzeare..., 2016-05-20

 **Albistean aipatzen den material ugaria biltegir...** (PanderetaZalea [!])
'Basque Radio Program' eusk..., 2016-02-18

 **Kaixo Urtzi, Lehenik eta behin eskerrik asko...** (dabidnet)
Software libreria pasatzeare..., 2016-05-20

 **@urtzai aspaldi zabaldu nuen nire inguruan ni i...** (ziztazale)
Software libreria pasatzeare..., 2016-05-20

[»» Jardun osoa](#)

SUSTATUREN INGURUAN

ZER DA SUSTATU?

ARTXIBOA

PUBLIZITATEA

ESTATISTIKAK

KONTAKTUA

ERABILPEN BALDINTZAK

 GURE LIZENTZIA

JARRAITU SUSTATU.EUS

E-postaz, mezuz mezu:

[Harpidetu](#)

E-postaz, eguneko buletina:

[Harpidetu](#)



[»» Aukera gehiago](#)



Maiatzean, Sagardoetxeko sagasti loretsua inguruko eskolaumeek bisitatuko dute. Gainera, [sare sozialetan joko berri bat](#) jarri dute abian, Sagardoaren Lurraldea bisitatzeko duen pertsona orori bideratutakoa. **#jatorrizkobekatua** traola erabiliz, parte-hartzaileek Sagardoaren Lurraldean bizi duten unearen argazkia igo dezakete Facebook, Twitter edo Instagramera. Guztien artean bi lagunentzako sagardotegiko otordua zozkatuko da.

Sagardoaren Lurraldea hainbat sagardotegik nahiz Astigarraga, Hernani eta Usurbileko udalek osatzen dute, herri sagardogile garrantzitsuenean. Bere helburua Euskal Herriko sagardoaren kulturarekin harremana duen oro zabaltzea da, baita kultura honi lotutako esperientziak sustatzea ere.



ERANTZUN

